

## **KATALUNIAKO HIZKUNTZ NORMALIZAZIO PLAN OROKORRA: HIZKUNTZ POLITIKAK DEFINITZEKO ETA BURUTZEKO MARKO ESTRATEGIKOA\***

**Isidor Mari**

*Generalitateko Hizkuntz Politikarako Zuzendaritzaren Zuzendarioa*  
Itzultzailea: Joseba Ossa

### **AURREKARIAK**

Kataluniako Generalitatea 1977an behin-behinekoz berrezarri zenetik hizkuntz politikako zenbait neurri hartuak baziren ere<sup>1</sup> —beraz, 1979ko Autonomi Estatutua baino lehen—, esan daiteke 1980ko lehenengo hauteskunde autonomikoen ondoren hasi zirela erakundeak Kataluniako egungo hizkuntz politika eskala handian antolatzen.

Izan ere, 1980ko hauteskundeetatik ateratako gobernu autonomikoaren aurreneko erabakietako bat Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia (HPZN) sortzea izan zen, eta urte horretako uztailaren 24an Kataluniako Generalitateko Kontseilu Eragilearen Aldarrikapen bat kaleratu zen; bertan, hastapen-une haietako hizkuntz politikaren norabideen oinarriak ezartzen ziren, erabilpen ofiziala, irakaskuntza eta pertsonen arteko elkarri-kerak bereziki aipatu<sup>2</sup>.

Lehenengo legealdian zehar, 1980 eta 1984 urteen artean, hizkuntz politikak ahalegin berezia egin zuen marko juridiko eta organizatiboa garatzen. 1980 urtean bertan Kataluniako Parlamentuan Hizkuntza Normalizazio Legearen proposamena aurkeztu zen; gerora talde parlamentari guztien artean landu eta 1983an kontrako botorik gabe onartu zen. Egun in-

darrean darraien Kataluniaren hizkuntz normalizaziorako 7/1983 Legea da.

Azpmarratu nahiko genuke, beraz, hasiera-hasieratik hizkuntz politikan kontsentsuari eman nahi zitzaion garrantzia, guztien partehartzean eta elkarbizitza sendotzean oinarritua.

Antolaketa aldetik, HPZN 1980az geroztik hiru zerbitzutan egituratu zen: Hizkuntza Normalizaziokoa —katalanaren erabilpenaren hedapenaz arduratzen dena—, Hizkuntza Aholkularitzakoa —katalanaren ezagutza eskolaz kanpo hedatzeaz eta espezialitate hizkuntzak egiteaz eta hedatzeaz arduratua— eta Kataluniako Soziolinguistika Institutua —hizkuntzaren egoerari buruzko ikerketaz arduratzen dena—. Aldaketa gutxi batzuekin, oraindik ere hau da bere egituraketa gausia.

Hala ere, azpmarratu beharra dago hizkuntz politikako arlo oso garrantzitsu batzuk hasieratik Generalitateko beste sail batzuek hartu zituztela euren gain, eta ez HPZNk. Horrela, administrazio publikoaren eremuan Gobernazio Sailari zegokion; hezkuntza eremuan Hezkuntza Sailari, eta komunikabideei zegokienez Kataluniako Irrati eta Telebista Korporazioari, azken hau Lehendakaritza Saileko erakunde bat izanik. HPZNrekin loturaren bat zuten sailak elkarren artean koordinatu beharrak pixka bat beranduago gobernuko sail guztietako ordezkariak biltzen zituen Hizkuntz Normalizaziorako Batzordearen sorrera eragin zuen.

Lurralde ikuspegitik, Kultura Saileko lurralde-mugaketa bakoitzari hizkuntz politikako pertsonal teknikoa egokitu zitzaion. Hala ere, alor honetan azpmarragarriena lehen unetik ezarri zen toki-administrazioko indarren eta HPZNren arteko lankidetzaren izan zen, horrela eragina pausoz pauso herrialde guztira zabaldu ahal izan baitzen eta ezadostasun politikoen gainetik administrazio-maila desberdinetan jarduketaren bateratua mantentzea ahalbidetu baitzuen. Horrela, hitzarmenen bidez, lurraldeko leku askotan helduentzako katalan ikastaroak, katalanaren udal-zerbitzuak eta Hizkuntza Normalizazio Zentruak ezartzen hasi ziren. Hizkuntz politikaren hasiera-hasieratik, beraz, agerian geratu zen jarduketaren bateratua markoaren ildotik jarraitzeko beharrezkoak zirela sailen eta lurraldearen arteko koordinazio-sistemak.

1980-1984 legealdiko gertaerarik garrantzitsuenak, lege eta antolaketa aldetik eginiko ahaleginaz gain, honakoak izan ziren: herri-erakunde eta erakunde autonomikoetan Katalanaren erabilpen ofizialaren hazkuntza, irakaskuntza-sisteman pausoka katalana hizkuntza bideratzaile gisa hedatzen joatea eta irrati emanaldi publikoen, eta batez ere, Kataluniako Telebistaren (TV3) arrakasta. Halaber, 1981-82 denboraldian «Katalana, guztion gauza» lelopean izandako lehenengo sensibilizazio-kanpainaren eragin handia aipatu nahi genuke, Norma izeneko neska bat protagonizatzaile zuela. Gizarte katalan guztiak bat egin zuen hizkuntz normalizazio proiektuarekin —nahiz eta aurkako adierazpen batzuk ere izan, 1981ean gaztelaniaren elkargo profesional batek izenpetu zuen manifestua, kasu—.

\* 1995eko azaroan Bartzelonako Plangintzari buruzko Nazioarteko Kongresuan egindako hitzaldia.

1) Bereziki 1978-1979 ikasturtean katalana irakaskuntzan sartzea.

2) 1978ko Espainiako Konstituzioak eta 1979ko Kataluniako Autonomi Estatutuek ezarritako hizkuntz ofizialtasun bikoitzaren marko juridikotik abiatuta, Aldarrikapen hark Kataluniako berezko hizkuntza moduan katalanaren erabilpen orokorra berrezartzeko nahia iragartzen zuen, hiritar bakoitzak bere hizkuntza, hala gaztelania nola katalana, erabiltzeko duen eskubidea errespetatuz. Biztanlegoak oro har katalana -gaztelania ez bezala- ez zuela ezagutzen kontuan izanik, Aldarrikapenak helduei Kataluniako berezko hizkuntza ikastea errazteko «irakaskuntza alorrean jardura sendoa» aurrikusten zuen. Katalanaren erabilera laguntzeko Aldarrikapenak «maila publiko eta pribatuan», solaskideek katalana ulertzen zutenean beti ere, *elebitasun pasiboa* aholkatzen zuen (hau da, elkarriketa elebidun alternatiboa). Oinarri orokor hauek ezarri ondoren, Aldarrikapenaren hurrengo bi zatiak Generalitatean eta bertako funtzionarien artean izan beharreko katalanaren erabilpen ofizialari buruzkoak ziren. Bukatzeko, dei bat egiten zitzaion erakunde publiko eta pribatuei katalana gizartean hedatzen lagun zezaten, eta hizkuntz aholkularitza zerbitzuak eskaintzen zitzaizkien.

---

**«Alor honetan  
azpimarragarriena  
lehen unetik ezarri zen  
herrietako indarren eta  
HPZNren arteko  
lankidetzaren izan zen,  
horrela eragina pausoz  
pauso herrialde guztira  
zabaldu ahal izan  
baitzen eta ezadostasun  
politikoen gainetik  
administrazio-maila  
desberdinetan jarduketa  
bateratua mantentzea  
ahalbidetu baitzuen»**

Hurrengo legealdian zehar (1984-88) azaldu berri dugun marko juridiko eta organizatiboaren ahalmenez ahalik eta gehien baliatzeko saiakera egin zen, eta 1980an zegoen hizkuntz egoera onera aldatzea erdiestearekin batera, ereduak zituen mugak egiaztatu eta muga horiek gainditzeko zailtasunak agerian geratu ziren.

Adibidez, marko juridikoari dagokionez, 107/86 Dekretuaren bidez Generalitatean katalanaren erabateko erabilpena arautu egin zen, baina Kataluniako Generalitatearen Funtzio Publikoari buruzko 17/1985 Legearen 34. artikulua ezarpena inpugnatu eta geldiarazi egin zen; artikulua horrek, administrazio autonomikoaren zerbitzura zegoen pertsonalari ahozko eta idatzizko ezagupenak eskatu ahal zitzaizkiola ezartzen zuen. Auzitegi Konstituzionalaren epaia —azkenik Generalitatearen aldekoa— ez zen iritsi 1991ko otsaila arte eta ordurako pertsonal berriaren gehien-goak bere lanpostua bermatua zeukan. Bien bitartean, 1986ko ekainean Auzitegi berak emaniko epai batzuek Katalunia, Euskal Autonomi Erkidegoa eta Galiziako normalizazio-legeetako artikulua batzuek balio gabe utzi zituzten. Hain zuzen ere 7/1983 Legearen bi artikulua ezabatu ziren (Kataluniako Parlamentuko legeetan testu katalanak lehenetsia izateari eta hiritarren hizkuntz eskubideen defentsan Generalitateak lege aldetik jarduteko aukerari zegozkionak). Beraz, ulertzeko orduan ofizialtasun bikoitzeko erregimenari muga bat ezarri zitzaioala zirudien.

Bestalde, lehen aipatu dugunez, hizkuntz egoeraren bilakaeran ezaugarri positiboak azaltzen ziren. 1986ko hizkuntz erroldak adierazten zuenez hiritarren %90ak ulertzen zuen katalana, %64k hitz egiten zuen, %60ak irakurri eta %32k idatzi. 10 eta 19 urte arteko biztanleen artean kopuruak are handiagoak ziren: %97, %78, %80 eta %63 hurrenez hurren. 1980ko estimazioen arabera katalana %80ak ulertu eta %60 baino gutxiagok hitz egiten zekiela kontuan izaten badugu, hizkuntz politika berriak izan zuen eragina neur genezake.

Hizkuntzaren estandarizazio-eta funtzioaren espezializazio-prozesuak ere aurrerapenak egin zituen: katalan estandarren hedapena eta gizartean eta lurraldean onarpena nabarmenki zabaltzeaz gain TERMCAT Terminologia Zentruak —1985ean sortua, Generalitatearen eta Ikasketa Katalanen Institutuaren akordioz— espezializate-hizkuntzak lantzea eta zabaltzea erraztu zuen. Katalanaren erabilpena inguru berri eta jarduera berrietara zabaltzeak hizkuntz estatusaren planifikazioa eta hizkuntz korpusaren planifikazioa elkarrekin artikulatu eta lotzeko behar berriak azalarazten zituen.

Hizkuntza katalanaren erabilerrari dagokionez 1988an toki administrazio eta autonomi administrazioetan ohikoa zela esan daiteke, baina hori ez zen horrela 1980 aurretik (periferia administrazioan edo administrazio judizialean, aldiz, ez zen oso ohikoa katalana erabiltzea); hezkuntza-alorean lehen hezkuntzako ikasleen %40ak irakaskuntza katalanez jasotzen zuten (murgiltze-programak jarraitzen zituzten 60.000 inguru ikaslerekin), bigarren hezkuntzako zentruen %40ak gutxienez ikastaroko bi jakintza-

gai katalanez irakasten zituen eta unibertsitateetan ikastaroen erdiak baino gehiago katalanez ematen ziren (1978-79 ikasturtean, aldiz, batxilergo ikastetxeen %55ak eta Bartzelonako lehen hezkuntzako ikasleen %32ak ez zeukaten oraindik ezta katalanezko klaserik ere); katalanez eginitako argitaraldiek aurrerapauso garrantzitsua emana zuten (1978an argitaratutako 1.132 izenburuetatik 1987ko 4.145era); 1980an katalanez eginitako %12ko telebista emanaldiak ia-ia %50era iragan ziren, gaztelaniazko emanaldiekin parekatzeko moduko ikusentzulegoarekin (hala ere, 1988an martxan jarritako telebista-kanal pribatuek gaztelaniaz soilik emititzen dutenez, oreka hau aldatu egin zen). Katalanez idatziriko eguneko prentsaren bilakaera, ordea, askoz ere motelagoa zen (1980ko %6ko zabalkundetik 1988ko %12ra) eta katalanak ez zuen askorik aurrera egiten bideo, zinema, informatika eta jarduera ekonomikoetan, nahiz eta HPZNk zenbait sustapen-kanpaina bultzatu zituen. Beraz, bilakaera-zeinuak anbiguak ziren, eta aurrerapenak berriz jende askok aurrikusi baino motelagoak.

1986an Hizkuntza Katalanaren Nazioarteko Bigarren Biltzarrak egoera soziolinguistikoaren balantze zehatz baten inguruan gizarteko sektore asko mugiarazi zituen<sup>3</sup>. Biltzar honetako bilkura eta ondorioek aurrerapenak aztertzeko balio izan zuten, oztopo nagusiak identifikatu eta hizkuntz normalizazio prozesuan planifikazio baten beharra azpimarratzeko. Hau izan zen, hain zuzen ere, Biltzarraren amaierako erabakietako bat. Horrela, planifikazioaren ideia soziolinguisten ingurutik atera zen eta kalean adieraziriko nahi kolektibo bilakatu.

Garai berean, 1987an, HPZNk Kataluniako Generalitateko Goi Mailako Tituludun Kidego Berezian hizkuntz planifikaziorako funtzionario-talde baten sorrera bultzatu zuen. Beraz, Kataluniako hizkuntz politikan hizkuntz planifikazioa argi eta garbi lan teknika gisa hartua izan zen.

Horrekin batera Bartzelonako Unibertsitateak, HPZNren laguntzaz, hizkuntzalaritza aplikatuaren hirugarren zikloko ikasketen artean hizkuntz planifikazio eta zerbitzuen Master bat hasi zuen, gerora erakunde konplexuen hizkuntz zerbitzuen kudeaketaren ardura hartzeko gai izango ziren profesionalak trebatzeko. Horrela hizkuntz planifikazio teknikak sektore pribatuaren eskura ere jarri ziren.

## 1988-92 LEGEALDIA: PARADIGMA-ALDAKETA

1988 amaierara iritsitakoan, beraz, zenbait arrazoik gero eta argiago erakusten zuten ordura arte Generalitateak jarraitutako hizkuntz politika eredu berritu egin behar zela. Alde batetik barne-arrazoiak ziren: hizkuntz egoeraren bilakaera berak aukera eta eskakizun berriak planteatzen zituen, biztanleen artean katalanaren ezagupenaren zabalkundeak etapa berri bat zabaltzen zuela esan genezake, erabilpen soziala oinarritzat hartu behar zuen etapa bat; ia hamarkada baten ondoren, hizkuntz politika autonomikoko esperientziaren azterketa kritikoak hausnarketarako eta

3) Batzar hori, egia esan, herrialde katalanetako zenbait hiritan aldi berean izandako biltzar batzuk izan ziren: hizkuntz normalizaziorako planteamendu eta prozesuak (Lleida), Zuzenbidea (Andorra), Komunikabideak (Perpinya), Hizkuntzaren Soziologia (Girona), Irakaskuntza (Tarragona), Hizkuntzaren Historia (Valentzia) eta Hizkuntzalaritza Soziala (Palma).

4) *Estudis y propostes per a la difusió de l'ús social de la llengua catalana*. Kataluniako Generalitateko Kultura Saila. Bartzelona, 1991.

**«Katalanaren erabilpena inguru berri eta jarduera berrietara zabaltzeak hizkuntz estatusaren planifikazioa eta hizkuntz korpusaren planifikazioa elkarrekin artikulatu eta lotzeko behar berriak azalarazten zituen»**

gogoetarako arrazoi asko agertarazten zituen, neurri batean 1986ko Biltzarrean ere planteatuak, baina era zabalago eta kanpokoago batean dei-garriak ziren elementuak azaltzen ziren: Espainiako autonomi Estatu eredu berregokitzeko asmoak eta Europan integratzeko prozesuak gero eta garrantzi handiagoa izateak hizkuntz politika ikuspegi eraberritu batetik ikustera behartzen zuten.

Zalantzarik gabe, birplanteamendu orokorreko etapa batean aurkitzen gara, aldaketa koalitatibo batean, paradigma berri baten definizioan. Hala ere, kontzientzia hau aldaketa beharrezkoa bezain zaila zelako uste osoarekin batera zihoan, zeren katalanen nahi kolektibo guztien —sozial, ekonomiko, kultural edota politikoak— bultzapenarekin lotuta baitzihoan. Prozesuak alferrikako tentsio edo ezadostasun sozialak ez eragiteko, nagusiki gizarteak protagonizatu eta bereganatutako aldaketa moduan aurkeztu beharra zegoen, sektore guztietako ordezkari koalifikatuei hausnarketarako elementuak eskainiz, HNrako eskemen berregokipena eztabaidatzeko eta aldaketa soziolinguistikoaren bultzapen honen inplikazio erak berdefinitzeko bide batzuk emanez.

Horrela, 1989 urtean zehar, HPZNd osagarriak ziren bi jarduketa bideri ekin zion:

**I- Egoera soziolinguistikoari eta egoera aldatzeko aukerei buruzko ikerketa-sorta bat, bi bloketan egituratuta:**

- a) Kataluniako Soziolinguistika Institutuak koordinatutako lana, aditu katalan eta atzerrikoen partehartzearekin, eta hiru zati osagarri osatua: 1) Sektore sozial desberdinetako katalanaren egoeraren azterketa. 2) Aldaketa sozial prozesuen dinamikaren eta hizkuntzaren bilakaeran eragina izan dezaketen faktoreen azterketa. 3) Beste herrialde batzuetan garatutako hizkuntz planifikazio esperientzien aukeraketa. Ikerketa multzo hau beranduxeago argitaratu zen<sup>4</sup>.
- b) Katalana normalizatzeko konstituzio-eta estatutu-markoek eskaintzen dituzten aukera gorenei buruzko azterketa, zenbait juristek egina, hizkuntz politikaren lege markoa eguneratzea ere bertan bilduz.

Bi lan hauek HP berriari buruzko eztabaida sozial zabal baterako oinarri soziolinguistiko eta juridikoak eskaini behar zituzten.

**II- Hizkuntz normalizaziorako Plan orokor bat itxuratzea (HPZN), bertan instituzio publiko eta pribatu guztiek prozesuan bakoitzak izan beharreko papera eta partehartzea zehaztuz**

Planteamendu hau Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak 1990eko uztailan eman zuen ezagutzera, *Un nou impuls a la política lingüística* izenburuko hitzaldi batean; bertan lege-markoa eguneratzeari ekiteko asmoa ere iragarri zen.

Egitasmoaren aplikazioa prestatzeko asmoz, hizkuntz politika etapa berrian sektore sozial eta lurralde desberdinetan agente moduan lan egiteko teknikoki prestatutako egitura organizatibo baten hedapena bultzatu zen.

Horrela, Generalitateko Hizkuntza Normalizaziorako Batzordearen sailen arteko Sare Teknikoa indartu egin zen eta berau sail bakoitzaren hizkuntz politikako urteko egitasmoak era koordinatuan egiten hasi zen. Horrekin batera, era osagarrian, udal botere eta Generalitatearen arteko adostutako jarduketa erakunde gisa 1988z geroztik Hizkuntza Normalizaziorako Partzuergoa sortu eta hedatu zen Katalunia osoan. Bukatzeko, gizarte zibileko sektore guztietan hizkuntz zerbitzuen sorrera bultzatu da: enpresa, sindikatu eta profesional elkargoak, unibertsitateak, kirol-federakuntzak, eta abar.

Soziolinguistika alorrean erakundeek daukaten garrantziaz jabeturik HPZNk *Programa tipus* bat prestatu eta zabaldu zuen, hizkuntz zerbitzu berri hauek guztien lanerako erreferentzia amankomun gisa<sup>5</sup>.

Beste erakunde maila batean, 8/1981 legeak Kataluniako Ikasketa Institutuari hizkuntza katalanari dagokionean agintaritzak akademikoa aitortzen zion eta katalanaren estandarizazio eta elaborazio funtzionalaren prozesuan lankidetzarako oinarriak ezartzen zituen.

Amaitzeko, 28/1991 Dekretuak Hizkuntz Katalanaren Kontseilu Soziala sortzen zuen, adostasun berri bat sortzeko eta gizarteko instituzio nagusiek zuzenean parte hartzeko pentsatutako organoa. Kataluniako Generalitatearen Presidente bera da honen buru eta bertako kide dira Kataluniako Ikasketa Institutuko zebait kide, Justizia Epaitegi Gorena, enpresa eta sindikatu elkargoak, udalerrri elkarteak, komunikabide handiak, eta abar.

Osaketa bilkura bertatik (1991ko uztailean), HPZNk Kontseilu Sozialari hizkuntz normalizaziorako plan orokor bat (HNPO) egiten parte hartzea proposatu zion, helburu nagusia zehaztuz hasi eta hizkuntz politikako sektore bakoitzerako estrategiarik egokiena pausoz pauso diseinatzen lagunduz.

## PLANA EGITEKO PROPOSAMENA ETA AKORDIO FORMALA

HPZNk Kontseilu Sozialari aurkeztu zion proposamenak<sup>6</sup> HNPOren bi «helburu nagusi» azaltzen zituen:

- Aldaketa ekonomiko, sozial eta politikoak eta aldaketa soziolinguistikoa elkarrekin lotzea eta
- Gizarte zibilaren erantzuna botere publikoen partehartzearekin artikulatzea.

Halaber, planak egin beharreko jarduketak egituratzeko bost «ardatz nagusi» aipatzen zituen:

1. Nazioarteko testuingurua, bereziki europarra, non katalanak antzeko tamainako beste hizkuntzek duten estatus baliokidea lortu behar duen.
2. Estatu-markoa; Estatu osatzen duen hizkuntza denez katalanaren ber-

5) Zerbitzu hauetako pertsonal teknikoaren trebakuntzari arreta berezia eskaini zaio: hizkuntz planifikaziorako funtzionario-taldea antolatzeaz gain (dagoeneko bertara hiru promozio iritsi dira) HPZN eta Hizkuntza Normalizaziorako Partzuergoak hizkuntzaren didaktikari, hizkuntz aholkularitza eta dinamizaziorari buruzko ikastaro zehatzez osatutako trebakuntza-plan bat antolatzen dute, eta Bartzelonako Unibertsitatearen planifikazio eta hizkuntz zerbitzuen Masterraren edizioetan lagundu izan dute.

6) *Guió per a l'elaboració d'un Pla general de normalització lingüística*. 1991ko uztaila.

**«Bilakaera-zeinuak  
anbibalenteak ziren, eta  
aurrerapenak berriz  
jende askok aurrikusi  
baino motelagoak»**

- dintasun-onespenera iritsi beharra dago.
3. Hizkuntza katalana dutenen lurralde-multzoa; hauekin hizkuntz politiken koordinazio berdinkidea lortu beharra dago, hau da, berdinen arteko koordinazioa.
  4. Erakunde publiko eta pribatuen hizkuntz funtzionamenduaren pausoz pausoko berregokitzea, hiritarren hizkuntz aukera bermatu eta katalana lan-hizkuntza moduan erabiltzeko.
  5. Estrategikoki erabakikorak diren sektoreei lehentasuna ematea, mundu sozioekonomikoa edota biztanlego gazteena kasu.

Agiriaren oinarritzko abiapuntua zera zen: «*hizkuntz normalizazioa*» gizarte guztiak protagonizatu beharreko aldaketa soziokultural moduan ulertu beharra dagoela eta aldaketa horretan elkar-menpekotasun handia dago kontzientzia sozialaren (iritzi publikoa, ideologiak, jarrera politikoak, apreziazio kolektiboak, nagusi diren arau sozialak...), kontrol sozialerako mekanismoen (marko juridikoa, gobernuaren jarduera, gizartearen bizkarrezur diren erakundeen bitartekaritza) eta jendearen hizkuntz jokaeraren artean. Beraz, lau dimentsiotako aurrerapen paralelo eta osagarri moduan planteatu beharra dago:

- Aldeko kontzientzia sozialaren sorrera.
- Estandarraren espezializazio funtzionalari esker hizkuntz ereduak eskura izatea.
- Katalanaren ezagupenen zabalkunde orokorra eta
- Sektore sozial jakinetan katalanaren erabilpenaren pausoz pausoko eta aukeratutako zabalkundea.

Prozesu honetan, aldaketa soziolinguistikoaren azterketa eta esperientzia positiboenak kontuan izanda, HNPO guztiaren «oinarritzko hipotesi estrategikoa» planteatzen zen: Pertsonen jokaera linguistikoaren pausoz pausoko aldaketa era naturalean eta borondatez eman beharrekoa da, batez ere gizartearen bizkarrezur diren eta helburu kolektibo eta bizitza indibidualerako arlo guztiarekin bitartekari-lana egiten duten erakundeen (mota guztietako erakunde publiko eta pribatuak, lanekoak edota aisialdikoak) hizkuntz funtzionamenduan emandako pausoz pausoko aldaketaren ondorioz.

Aldaketa txiki batzuekin, puntu hauek guztiak 1991ko abenduaren 18ko HNPOari buruzko Akordioan jaso ziren. Bertan, osoko bilkuran, Hizkuntza Katalanaren Kontseilu Sozialak Plana egiteari ekitea erabaki zuen. Akordio honetan, halaber, plana egitean eta burutzean gorde beharreko 8 printzipioak jasotzen ziren:

1. Inplikaturako agente sozialen erabateko partehartzea.
2. Aldaketa bat ematen ari delako kontzientzia mantentzea.
3. Prozesuaren pausoz pausoko izaera, gizartearen garapen-dinamika bera ahalik eta gehien aprobetxatuz.
4. Enfoke orokor eta sistematikoa.
5. Etekin gehien ematen duten ekintzak hobestea.
6. Behartzeko sistemak baino gehiago sistema eraginkorren aldeko auke-

ra egitea.

7. Adostasuna osatu eta aurkakotasunak saihestea eta,
8. Hizkuntza prestigio- eta modernitate-elementuekin uztartzea.

Akordio honen punturik garrantzitsuena, ordea, Planaren **helburu nagusia** zehaztea da. Helburu hori bi zati osagarritan egituratzen da. Lehenengoak, ikuspegi kolektibo batean oinarrituta, berezko hizkuntzaren zentzua garatzen du: Kataluniako berezko hizkuntza instituzio publiko eta pribatuek erabilpen publiko guztietan ohituraz erabil dezatela lortzea eta, inolako menpekotasun-baldintzarik gabe, jarduera guztia horrela gara dezatela lortzea.

Bigarrena, ikuspegi indibidualagotik, hizkuntz ofizialtasunak dakartzan inplikazioei buruzkoa da: Kataluniako hiritar bakoitzaren hizkuntz eskubideak erabat errespetatuak izan daitezela lortzea, jarduera publiko, profesional, kultural, sozial edota aisialdikoan, botere publikoek eskubide hauek gauzatea babesten edo laguntzen dutela jakinik, hizkuntza katalana duen komunitateak lurraldeko berezko hizkuntzarekiko duen eskubide kolektiboa zapaldu gabe.

Akordio honetatik abiatuta eta HNPO egiteko asmoz Kontseilu Soziala zazpi ponentzia-batzorderen inguruan egituratu zen. Bertan, Kontseilu bertako bokalez gain, sektore bakoitzeko beste ordezkari koalifikatu asko eta Generalitateko Sailburuak elkartu ziren eta horrek lanen izaera partehartzailea areagotu egin zuen. Ponentzia-batzordeek Planaren programa eta sektoreen geroko egituraketa isladatzen zuten eta honako hauek izan ziren:

1. Erabilpen ofiziala eta hizkuntz eskubideak.
2. Hezkuntza, ikerkuntza eta gazteria.
3. Komunikabideak eta kultur industriak.
4. Inguru sozioekonomikoa.
5. Elkarre-mundua.
6. Kultur harremanak.
7. Estandarraren zabalkundea eta ikerkuntza soziolinguistikoa.

Plana egiteko prozesua (1982ko hasieratik 1993ko uztaila arte luzatu zen), planifikazio estrategikoaren metodologiaren azaltzen zen moduan, HKKS-ko Idazkaritza eta HPko Zuzendariordearen artean osatutako lan-talde batek koordinatu zuen. Aukera metodologiko hau egokiena zirenekin hainbeste aktorek helburu politiko nagusiak ezarri zituzten, urtez urteko ikuspegi batetik, era malguan eta aldika berrikusteko moduan, etengabe aldatzen ari den errealitatea den egoera soziolinguistikoari pausoz pauso egokitzeke.

## PLANAREN ELABORAZIO-PROZESUA

Nagusiki hiru izan dira Kontseilu Sozialak «Plana egiteko bereizi dituen faseak»:

---

**«1988 amaierara iritsitakoan, beraz, zenbait arrazoik gero eta argiago erakusten zuten ordura arte Generalitateak jarraitutako hizkuntz politika eredu berritu egin behar zela»**



**«Zalantzarik gabe,  
birplanteamendu  
orokorreko etapa  
batean aurkitzen gara,  
aldaketa koalitatibo  
batean, paradigma berri  
baten definizioan»**

1. Inguruaren azterketa.
2. Helburu eta norabide sistema ezartzea.
3. Neurrien proposamena.

Plana egitean ponentzia-batzorde sektorial bakoitzeko lanak, kide bakoitzaren ezagupen zehatzez gain, HKKSko idazkariak emandako oinarriko informazioa ere bazeukan, hiru motatako datuak hain zuzen ere:

- Sektorean hizkuntzaren egoera sozialari buruzkoa.
- Sektoreko hizkuntz legediari buruzkoa eta
- Sektore horretan hizkuntz normalizazioan izandako jardueri buruzkoa.

Honetan oinarriturik, ponentzia-batzorde bakoitzaren lehenengo lana **inguruaz aztertzea** zen, hizkuntzaren etorkizuneko bilakaeraren joera nagusiak identifikatuz, bai aldekoak —planifikazio estrategikoaren hizkeran «aukerak» izenekoak—, bai kalterakoak —planifikazioan «mehatxuak» izenekoak—. Ponentzia-batzorde bakoitzeko kideen ekarpenak, aztertu beharreko sektore bakoitzean nabarmendutako joerak jasotzen zituen zerrenda bateratu batean bildu ziren. Horren ondoren, ponentzia-batzordeko kide bakoitzak joera horiek kopuru aldetik (positibo ala negatibo) baloratu zituen eta balorazio horien emaitzek HNPO egiteko orduan kontuan izan beharreko aukera eta mehatxu nagusien zerrenda neurtu bat lortzea ahalbidetu zuten.

Plana egiteko hurrengo fasea **helburu eta norabide-sistema ezartzea** izan zen. Horretarako, prozedura honakoa izan zen: aurreko fasean nabarmendutako «aukera nagusiak» **norabide estrategiko** gisa aurkeztu (dagokion inguru sozialean jarduteko neurri zehatzak lantzeko norabide gisa, alegia) zeren aukera bakoitzak hizkuntzaren garapenak aurrera egin ahal izateko errentagarritasun maximoko ildo bat erakusten baitzuen.

Adibidez, zinema eta bideoari dagokion atalean, ponentzia-batzordeak ondorengo hiru aldeko joera hauek nabarmendu zituen:

<u>Balorazioa</u>	<u>Joeraren testu laburtua:</u>
+ 7,8	Katalanez haurrentzako bideoak ekoizteko berezko ekoizketa izatea eta alor honetan bikoizketa politika egotea.
+ 8,5	Katalanera bikoiztutako Estatu Batuetako zinema komertziala egotea, gauza normalizat hartuta.
+ 7,8	Katalanera bikoiztutako atzerriko pelikulen eskaintza berriek harrera ona izatea.

Hortik ateratako «norabide estrategikoa» honakoa izan zen:

Zineman, telebistan edo bideoan katalanera bikoiztutako filme komertzialei jendeak egiten dion harrera ona aprobetxatzea.

Modu berean, inguru-azterketa faseko mehatxu nagusi bakoitzetik abiatuz (atentzio aktibo gehien eskatzen zuten zailtasunak ziren) gerora Pla-

naren helburu orokorra lortzeko ezarri beharreko neurri zehatzak bideratzeko, **helburu zehatzegokia** zein izan behar zuen gogora ekarri zen.

Lehenxeago erabili dugun zinema eta bideoaren inguruko adibide berarekin jarraituz, «kalterako joera» edota «mehatxu» nagusia honakoa zen:

Balorazioa

- 7,5

Joeraren testu laburtua:

Karteldegietan gaztelaniaz eginiko filmeak erabat nagusi dira, nahiz eta katalanez egin-dako zinemaren komertzializazioari laguntzak eman zaizkion.

Beraz, zegokion «helburu zehatza» honela formulatu zen:

Berezko ekoizpeneko edo katalanera bikoiztutako filmeen presentzia eta zabalkundea areagotzea, eta baita beste zenbait produkturen ere (dokumentalak, telesailak, eta abar).

Helburu eta norabide hauek interbentzio arlo edo azpisektore bakoitzean mailaz maila integratzeak lehenengo **arloko helburuak** ezartzea ahalbidetzen du, eta helburu horiek elkartuta, helburu nagusiaren ikuspegitik, HNPOren **helburu sektorialen** ezarpena.

Horrela landutako helburu eta norabideen sistema ponentzia-batzorde bakoitzeko kideek berrikusi eta onartu egin zuten, hurrengo faserako abiapuntu gisa. Hirugarren fase honetan Planaren helburu zehatz bakoitza erdiesteko **neurrien proposamena** egitea izan zen. Ponentzia-batzordeetako kide bakoitzak aurkeztutako proposamenak zerrenda bateratu batean bildu, berregin eta sailkatu egin ziren eta zerrenda horretatik abiatuta balorazio berezi eta zehatza egin zen Plana burutzeko egokiak ziren neurriak aukeratzeko. Balorazio hau lau irizpide edo faktoretan oinarritzen zen:

- Sinpletasuna (burutzen errazak izatea).
- Eraginkortasuna (etekin hobeak eskuratzea ahalbidetzea).
- Ekonomia (baliabide gutxi behar izatea).
- Onarpena (ustez aurkako jarrera gutxi eragitea).

Balorazio hau egin ondoren HKKSren osoko bilkurak, 1993ko uztailaren 26an, Kataluniako Generalitatearen Presidenteari HNPOren Egitasmo-proposamen osoa aurkeztu ahal izan zion, bertatik abiatuz Gobernuak behin betiko bertsioa egin zezan.

## PLANAREN BEHIN BETIKO BERTSIOA

HKKS aurkeztutako proposamena berehala aztertu zuten Generalitateko Sail desberdinek. Prozesu honetan, proposamenak zenbait berregokipen izan zituen:

a) **Neurriak aukeratzeko:** HKKS berak aurkeztutako balorazioak agintzen

**«Egitasmoaren aplikazioa prestatzeko asmoz, hizkuntz politika etapa berrian sektore sozial eta lurralde desberdinetan agente moduan lan egiteko teknikoki prestatutako egitura organizatibo baten hedapena bultzatu zen»**

**«Gizarte zibileko sektore guztietan hizkuntz zerbitzuen sorrera bultzatu da: enpresa, sindikatu eta profesional elkargoak, unibertsitateak, kirol-federakuntzak, eta abar»**

zuen bezala neurriak zenbait multzotan bildu ziren. Eraginkortasun txikikoak eta/edo onargarritasun txikikoak baztergarriak zirela erabaki zen. Besteak, hasiera batean onargarriak zirenak, teknikoki beste multzo batzuetan jarri ahal baziren eraberritu egin ziren eta bere bideragarritasunari buruzko iritzi politikoen arabera aukeratu eta berregokitu egin ziren.

**b) Sailen proposamen berriak eranstea.** Generalitateko sailek egindako ekarpenek helburu edota neurri berriak gaineratzea ekarri zuten, batzuetan berregokipen garrantzitsuak zekartzaten neurriak, adibidez 5. sektorean. Bertan, **Osasun eta asistentzia mundu** arlo berri gisa bereiztu zen, Planaren egitura barruan izugarrizko garrantzia zeukalako.

**d) Helburu eta neurri bakoitzaren arduradunen zehaztapenak.** Generalitateko erakunde bakoitzaren aginpidearen arabera Planaren helburu eta neurri bakoitzaren egokiera helburu zehatz bakoitza lortzeko edo neurri bakoitza buruzko arduradun zehatz batzuei eman zitzaieen, neurri hau erabakiorra izanik Planaren burutzapen eta garapenerako.

**e) Negoziaketa politikoa eta HNPOren benetako onarpena:** Arestian azalduko etapak 1994ko lehenengo hilabeteetan amaitu ziren eta beraz Planaren testuaren behin betiko onarpen politikoa besterik ez zen falta. Baina 1993ko udarako estatuko hauteskundeen ondoren eragindako une politikoak —eta zehazki Hizkuntza Normalizazio Legea zela-eta Auzitegi Gorenak Auzitegi Konstituzionalari aurkeztutako konstituzionaltasun arazoak— Generalitateko Gobernua Auzitegi Konstituzionalaren erabakia- ren zain geratzera behartu zuen. Azkenean epaia aldekoa izan zen eta horren ondoren kontaktuak hasi zituen parlamentuko indar politiko guztiekin (hauetako batzuek ekarpen zehatzak egin zizkieten Planari), 1995eko martxoaren 7an behin betiko onartu zen arte.

## **PLAN MALGUA: PROGRAMAZIO-MAILA ETA ZIKLOAK**

Pixka bat lehenxeago Plan Orokorren izaera malgua eta aldika berregokigarria azpimarratu dugu, Plan estrategiko izateagatik hau baita bere ezaugarrietako bat. Hau da Planaren balio nagusietako bat, erreferentzi-gune amankomun izatea bezain garrantzitsua, normalizazio-prozesuko aktore sozial nagusien partehartzearekin egina.

Izaera zabal eta dinamiko honek, ziklikoki egiten diren berrikuspenen bidez, Plana inguruan gertatzen diren aldaketetara egokitzea ahalbidetzen dute; programazio-maila desberdinak egoteak Plana helburuak lortzeko parte hartu behar duten erakunde desberdinen aldaketa berezietara egokitzea ahalbidetzen dute.

Beraz, programazio prozesuaren aldi eta zikloei dagozkien hiru maila dira. Ondorengo eskemak Plan orokorraren programazio maila eta zikloen artikulazioa azaltzen du::

### *PLAN OROKORRAREN, PROGRAMA MARKOAREN ETA URTEKO PROGRAMEN ARTEKO LOTURAK*

Hizkuntz normalizaziorako Plan orokorra (zenbait legealdi)  
HPZNren urteko programa  
HNPren urteko programa  
1994-1996 programa markoa Saitetako HNraiko urteko planak (legealdi bat)  
HZen urteko programak  
1997-2000 programa markoa (legealdi bat)  
2001-2004 programa markoa (legealdi bat)

Planaren eremu mugak —ez da planak epe luzerako dituen aurrikuspen estatikoekin nahastu behar— zenbait legealdi hartzen ditu (gutxi gorabehera, hamarkada bat) eta horietako bakoitzarentzat **Programa marko** bat —legealdi baterako Planaren helburu eta neurriak— ezartzen da. Legealdi bakoitzaren amaieran Plan orokorra zehatz-mehatz berrikustea aurrikuspen da, aukeretan eta mehatxuetan izandako aldaketak baloratzen dituen inguruaren azterketa berri batekin, berriro ere Hizkuntza Katalanaren Kontseilu Sozialeko ponentzia-batzorde guztien laguntzarekin.

Programa marko bakoitza, bestalde, Plan Orokorraren neurriak burutzeko parte hartzen duten erakunde bakoitzak duen **Urteko Programetan** banatzen da. Programa hauek urtero berrikusi egingo dira berregokipen txikiak sartzeko eta Planari jarraipena egiteko sektore desberdinetako jendeaz osatutako ponentzia-batzorde baten laguntza izango du, HKKSk helburu berezi horrekin sortua.

Inguruaren aldaketek segidan Plana egokitu beharra eragiten duten bezala, lurralde baten ezaugarri soziolinguistikoek ere helburu eta neurrien ezarpenean egokipenak eman beharra eragiten dute, lurralde eta denboran ahalik egokien kokatuz, kasuan kasuko erritmo egokiaren. Hau da, hain zuzen ere, Plana burutzeko lurralde organoa denez Hizkuntza Normalizaziorako Partzuergoaren urtez urteko programen funtzioa.

Horrela hizkuntz normalizazio Plan orokorra inguru sozialean eta hizkuntz normalizazioaren egituraketa bertan gertatzen diren aldaketetara ziklikoki eta etengabe berregokituko dela aurrikuspen da, bere helburu nagusia bete ahal izateko: botere publiko eta gizarte zibilaren arteko artikulazio-tresna egokia izatea, gure komunitateak demokratikoki ezarritako hizkuntz normalizazio helburuak erdiesteko.

### **PLANA BURUTZEKO ANTOLAKETA-EGITURA**

Gaur egun HNPOren burutzapenez arduratzen diren erakundeak honakoak dira:

#### **a) Zuzendaritza politikorako organoak**

- Generalitateko Gobernuak, politiken onarpen eta burutzapenaren arduradun gorena.

---

**«Pertsonen jokaera linguistikoaren pausoz pausoko aldaketa era naturalean eta borondatez eman beharreako da, batez ere gizartearen bizkarrezur diren eta helburu kolektibo eta bizitza indibidualerako arlo guztiekin bitartekari-lana egiten duten erakundeek (mota guztietako erakunde publiko eta pribatuak, lanekoak edota aisialdikoak) hizkuntz funtzionamenduan emandako pausoz pausoko aldaketaren ondorioz»**

**«Plana egiteko hurrengo fasea helburu eta norabide-sistema ezartzea izan zen. Horretarako, prozedura honakoa izan zen: aurreko fasean nabarmendutako aukera nagusiak norabide estrategiko gisa aurkeztu»**

- Hizkuntza Normalizaziorako Batzordea, sailen arteko koordinazio organoa. Batzorde iraunkor bat eta zenbait azpibatzerde aurrikusten dira. Batzorde iraunkorrek planaren burutzapena oso gertutik jarraituko du, eta azpibatzerdeek sail desberdinak parte hartzen duten inguru jakin batzuetarako sektoreetako koordinaketaz arduratuko dira.
- Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Orokorra, hizkuntz normalizazio-prozesuaren sustapen eta koordinaketaz arduratutako organoa.

**b) Koordinaketa teknikorako organoak**

- Programazio eta Koordinaketa Batzordea, hizkuntz zerbitzu sare desberdinen (sailen artekoa, lurraldekoa, sektoreetako) aktuazioa artikulatzeaz arduratua.
- Hizkuntza Normalizaziorako Sare Teknikoa, Generalitateko sail eta erakundeetako hizkuntz normalizazioaz arduratzen den egitura teknikoa.

**d) Inplikazio sozialeko kontsulta-organoak**

- Hizkuntza Katalanaren Kontseilu Soziala, bere ponentzia-batzorde desberdinekin zabaldua, Plana aldiro jarraitzeko eta berrikusteko.

**e) Lurralde-ezarpeneko organoa**

- Hizkuntza Normalizaziorako Partzuergoa, bere Zentru, Zerbitzu eta Bulegoekin.

**f) Sektorekako organoak**

- Kirol elkarte, unibertsitate, elkargo profesional, enpresa eta sindikatuen erakunde eta abarretako hizkuntz zerbitzuak.

**g) Korpusa planifikatzeko instituzioak**

- Ikasketa Katalanen Institutua, hizkuntza katalanerako agintaritza akademikoa duena.
- TERMCAT Terminologia Zentrua, terminologia egitea, normalizatzea eta hedatzea koordinatzeaz arduratzen dena.

Programazio-prozesuak badauka tresna informatiko zehatz baten laguntza, Geslingua programa hain zuzen ere, Generalitateko Informatika Zentruarekin batera garatutakoa. Une honetan 1995erako hizkuntz zerbitzu guztien programazioak dauzka. Epe labur batean programa honek linea bidezko sarbideak izatea aurrikusten da, zabaldu eta hobetzea pentsatzen da, pixkanaka HNPO bezalako planifikazio-marko zabal eta konplexuak behar duen informazio orokorreko sistemaren lagungarri bihurtu dadin.

Bestalde, Planaren burutzapenean garrantzi berezia eskaintzen zaio aktuazioen arduradun diren zerbitzu teknikoaren eta gizarte guztira iritsi behar duten informazioaren arteko komunikazioari. Horregatik 1994 urtearen amaiera aldera HPZN *Llengua i Us* hizkuntz normalizazio aldizkari teknikoa argitaratzen hasi zen, hizkuntz zerbitzuetako profesionalen komu-

nikazio-organo gisa. Gizarteko erakunde sektorialen arduradunei informazioa batez ere *Viure en Català* aldizkariaren bidez helarazten zaie, Hizkuntza Normalizaziorako Partzuergoak argitaratua. Planaren burutzapen-prozesuari buruz informazioak behar bezala zabaltzeko beste zirkular eta buletin batzuk erabiltzen dira.

HNPOri buruzko informazioak gizarteratzeko ildo honetan kokatzen dira, halaber, onartu eta gutxira egin ziren Planaren aurkezpenak: alde batetik Girona, Lleida, Tarragona eta Tortosan aurkezpen ekitaldiak; beste alde-tik, Bartzelonan aurkezpen sektorialak, non zuzenki inplikaturako gizar-te-sektoreetan programa bakoitzaren helburuak azaldu ziren.

## **BALORAZIO-BALANTZEA ETA PERSPEKTIBAK**

Zalantzarik gabe, behar adinako zehaztasuneko balorazioa egin ahal izateko HNPOren onarpena eta burutzapenetik denbora gutxiago pasa da. Oraindik ez da iritsi ezta programazioko urteko lehen zikloaren amaiera-  
ra ere, eta 1995eko lehen seihilekoari dagokion burutzapen balorazioaren informazioa besterik ez daukagu; horren arabera, egin beharrekoak erritmo normalean doaz aurrera, nola eskuratutako emaitzetan, hala ka-suren batean izan diren ezusteko txikietan.

Jarraipeneko lehen datu hauek urte amaieran behin betiko txostenekin osatu arte zain egon beharko dugu, eta horietan oinarrituz HNKK urteko balantzea egin ahal izango du, eta HKKSren Jarraipen Ponentzia-batzor-dearen balorazioa jaso ondoren, 1996ko urteko programetatik ondorioz-tatzen diren azken balorazioak eta ondorio praktikoak aterako ditu.

Bestalde, hauteskunde katalanetarako deialdia aurtengo azarora bertara zertxobait aurreratzeak aurtengoan legealdi ziklo baten amaiera eragiten du, eta ondorioz, Plan orokorra sakonki eguneratu eta 1996-2000 legeal-dirako Programa-marko berri bat prestatu beharra. Helburu horrekin Hiz-kuntza Politikarako Zuzendaritzaorde Nagusiak eta Kontseilu Sozialeko Idazkaritzak hurrengo hilabeteetarako lan-eskema bat prestatua dute, Kontseilu Sozialeko ponentzia-batzorde desberdinen bidez inguruaren az-terketa berrituz eta beharrezkoa den lekuetan Plana berregokituz. Jakina, Plan hau sakonki eguneratzeak aukera ona eskainiko du zentzu guztie-tan hobetzeko eta bere egokitzeko gaitasuna frogatzeko.

Bien bitartean, egungo ikuspegitik, HNPOren eguneratze-prozesu horrek gutxienez lau dimentsio handi kontuan izan beharko ditu:

**1) Lehenengoa, eta aurre-baldintza, hizkuntz normalizazio agenteek kon-zertazio markotzat erabat onar dezaten Plan orokorrak daukan gaitasun bera egiaztatzea.**

HNPO hizkuntz normalizaziorako helburu eta neurri zerrenda duen agiri soiltzat ez hartzeak garrantzi berezia du. Planaren egungo testua askoz ere nabarmenagoa den errealitate baten lehenengo formulazioa da (boro-bildu gabea eta hobetu daitekeena): hizkuntza katalanaren etorkizune-

---

**«Inguru-azterketa faseko mehatxu nagusi bakoitzetik abiatuz (atentzio aktibo gehien eskatzen zuten zailtasunak ziren) gerora Planaren helburu orokorra lortzeko ezarri beharreko neurri zehatzak bideratzeko, helburu zehatz egokia zein izan behar zuen gogora ekarri zen»**

**«Helburu eta norabide hauek interbentzio arlo edo azpisektore bakoitzean mailaz maila integratzeak lehenengo arloko helburuak ezartzea ahalbidetzen du, eta helburu horiek elkartuta, helburu nagusiaren ikuspegitik, HNPOren helburu sektorialen ezarpena»**

rako lankidetzaren hitzarmen zabala. Akordio hau ez da hizkuntz zerbitzuentzako programazio-sistema bateratu batera mugatzen, nahiz eta hori ere Planak eragiten duen efektu baliagarria izan. Alderdi edota administrazioen arteko adostasun politikoa baino haruntzago doan hitzarmena da, eta horixe dugu, hain zuzen, Kataluniako hizkuntz politikako balio nagusienetako bat.

Erabakiorra izango da hurrengo hilabeteetan HNPO bere dimentsio global eta sakonenean noraino ulertzen eta bereganatzen den egiaztatzea, hau da, hizkuntza katalanari osotasunezko etorkizuna bermatzeko botere publikoek eta aktore sozial nagusiek lankidetzaren konpromezua ezarri eta —inguruak hala eskatzen duen neurrian— etengabe eguneratzea ahalbidetuko duen marko estrategiko gisa.

**2) Planaren eguneratzearen bigarren dimentsio erabakiorra, bere helburu eta neurriak inguruaren azterketak erakusten dituen behar berrietara egokitzeko gaitasuna izango da.**

Lehenengo azterketak eta joeren balorazioak egin zirenetik iragandako denborak, aukera eta mehatxuak berriz identifikatzea eta neurtzea eskatzen du, eta horren arabera hurrengo urteetarako hizkuntz politikaren lehentasunezko helburuak hobeto birdefini eta zehatz ditzakegu. Adibidez, informazioaren gizarterantz gero eta azkarrago joateak sortarazten dituen erronka soziolinguistikoei erantzun egokia emateak duen garrantzia aipa dezakegu; puntu hau, egungo Planaren bertsioa egitean, ez zen behar bezain argi zehaztu. Bestalde, ezarritako neurriak eraginkorrak diren egiaztatatu beharko da eta bakoitzari dagokion helburuaren lorpena zalantzan jartzen den kasuetan egokienak aztertu beharko dira.

**3) Hirugarrenik, Planaren dimentsio teknikoak hobetzeak daukan garrantzia ere aipatu nahi nuke, sistematikotasunaren ikuspegitik eta egin beharrekoen programazioaren eta burutzapeneko zorrotasunaren ikuspegitik.**

Aurtengo urtean zehar arreta berezia eskaintzen hasi gaitzaizkio puntu honi. Egin beharreko bakoitzaren helburuak aurrikusitako emaitzen moduan formulatzeak Planaren osotasuneko adierazpide homologatu baterantz jo behar du, burutzapen-eta jarraipen-informazioen integrazio globala ahalbidetuko duten adierazle konpartitu batzuekin, eta «emaitza klabeen arloak» eta zuzendaritzarako informazio sintetiko eta arineko sistema bat ezarri. Planaren kalitate eta eraginkortasun orokorrerako aspektu erabakikorrak dira. Ez dut uste honetan gehiegi sakondu beharra dagoenik, are gutxiago kongresu honetako entzulegoa nolakoa den kontuan izanik.

**4) Bukatzeko, laugarren dimentsioa, baina ez garrantzi gutxienekoa: Planaren burutzapenean parte hartzen duten eragile desberdinen integrazio organizatiboan aurrera egiteko beharra.**

Horrelako konplexutasuna duen erakunde batean aspektu hauen hobetzeak egundoko garrantzia dauka. Horregatik, nire hitzaldia bukatzean dagoenean, bereziki nabarmendu nahiko nuke. Gaur eguneko egoerare-

kin alderatuz, ezinbestekoa izango da hiru aspektutan aurrera egitea:

- Lehenengoa, Planaren aitzindaritza eta erakunde zentral nagusia indartzen, zuzendaritza-organo guztien inplikazio zuzen eta aktibo baten bidez eta koordinazio-mekanismo guztiak sendotuz, sailen arteko eta sektoreen arteko ekintza-batasuna hobetuz.
- Bigarrenik, korpusaren planifikazioaren eta hizkuntzaren estatusaren arteko artikulazio egokian, hau da, hizkuntza sektoreetan erabiltzeko partehartzeetan eta hizkuntz baliabide edota baliabide didaktiko egokiak emateaz arduratzen diren organoek eman behar duten laguntzan (esperientziak egiaztatzen duenez, bi aspektuak ongi integratuta egon direnean egindakoaren eraginkortasuna askoz ere handiagoa izan da).
- Hirugarrenik, partehartze sektorialeak dituzten bideen sistematizazioan; hauek euren erakunde sendotzea aurkitu eta bere inguruko erakundeekin lankidetzara era homogeneoak hartu beharko dituzte bere gain (*Programa tipus* bezalako erreferentzi tresna amankomunaren eguneratzeak ildo honetatik aurrera egiteko balio lezake).

Ezin dugu ahaztu HNPOren oinarri estrategikoa erakundeen inplikazio partehartzailea dela, eta Planaren asmoa aldaketa soziolinguistikoa hizkuntza katalanaren alderako bideratzea den moduan, hizkuntz zerbitzuak direla erakundeen hizkuntz funtzionamenduaren bilakaeraren katalizazioak (gizartearen garapenean duen eragina gure hizkuntzaren zabalpenaren aldekoa izan dadin).

Badakit hizkuntz normalizazio Plan orokorrarekin zer nolako egitasmo handi eta konplexuari hasiera eman diogun. Alderdi nagusiak txukun azaltzen saiatu banaiz ere, agian ez nituen aipatuko beste hainbat puntu garrantzitsu. Baina, hala ere, gure esperientziak beste hizkuntz komunitateentzat interesgarria den zerbait izango duelakoan nago.

Batez ere nire uste osoa daukat denon partehartze aktiboak orain arte egin dugun bidean aurrera egitea ahalbidetu digun moduan, hemendik aurrera laguntza kritiko hori izango dugula. Egia esan, talde ahalegin honi esker HNPOren eta hizkuntza katalanaren etorkizunari begiratuta baiko-rrak izan gaitezke. Beraz, eskerrik asko guztioi, zuen partehartze eta arretarengatik.

---

**«Plan Orokorren izaera malgua eta aldika berregokigarria azpimarratu dugu, Plan estrategiko izateagatik hau baita bere ezaugarrietako bat. Hau da Planaren balio nagusietako bat, erreferentzigune amankomun izatea bezain garrantzitsua, normalizazio-prozesuko aktore sozial nagusien partehartzearekin egina»**